

PATRICE WATSON DUMORA



Abentura baten lehen akordeak...

Duela 14 urte, Patrice Dumora Watsonek hasitako abentura. 14 urte, bigarren disko hau porturatzeko. Bobi.

Bobi, 14 urtez desagertuta egon ondore, azkenean, non ibili den kontatzera etorri zaigu, berekin beste 9 kantu berri dakarrela.

Folk, pop eta rock estiloak nahasten dituzten kantuez osatua da disko eklektiko hau eta, bakoitzak, bere bidaia propioa dakar barnean. Gineatik etorritako Amadourena edota gerlatik itzultitako soldaduarena bezala. Barruko zein kanpoko bidaiak dira.

Disko hau, barruraino sartzen den horietakoa da. Patrice Dumoraren unibertsoa bidaia da Bobi, bere estilo pertsonala eta ahots paregabeaz gozatzeko aukera berri bat.

Patricen lanari aberastasun erraldoia ekarri diote:

Musikariek: Frederic Gaillardet pianoarekin, Maddalena Luzzi eskusoinua eta ahotsak, Raphaël

Ferreira baxua, Pierre Sangla bateria eta ahotsak, eta Romain Larregain gitarran.

Letragileek: Amets Arzalluz, Ortzi Idoate eta Beltzane Obanosena. Patricek, Tom Waitzen doinu bati ezarri dio letra.

Paxkal Etxeparek, grabaketak eta nahasketak.

Lorentxa Saraguetak lan grafikoa eta Odei Barrosok (Alkimia Productions), Teasera eta bideoklipa.

BIO

Patrice Dumora dut izena, baina « Watson » ezizenarekin ere ezagutua naiz. 66 urte ditut eta 19 urterekin hasi nintzen kantari, beraz abentura honen laburpena egitea ez da gauza erraza.

Landetan ekin nion pasioa plazaratzeari, folk eta dantzaldi taldeetan. Tarbesen ikasle nintzela, Imanol Larzabal ezagutzeko aukera izan nuen, Francoren heriotza zela eta antolatua izan zen kontzertu handi batean. Parte hartzaileen artean, Imanolez gain, Isabel Parra eta Paco Ibañez egon ziren, besteak beste. Beste bi lagunekin batera sortu genuen taldeak eman zion hasiera kontzertuari. Esperientzia paregabea izan zen gure sorkuntzak jendetza horren aitzinean kantatu ahal izatea, halako musikari handiak ondoan genituela.


Musika hartu nuen bide eta bideak Euskal Herriraino ekarri ninduen. Urria taldeko Robert eta Jean Michelek ireki zizkidaten, hain zuzen ere, Euskal Herriaren atea. Akizetik Baionara, bidaia txikia baina jauzi erraldoia, musika eta euskara uztartu bainituen lehen aldiz. Ezer gutxi iduri lezake batzuentzat, baina berebiziko garrantzia izan zuen honek niretzako.

Agian bada oraindik Juan Paquito edo Gazteok taldeez oroitzen denik. Euskal Herria plazaz plaza zeharkatzen genuen. Garai hartan hasi zitzaidan neure kantuek sortzeko grina.

Zenbait urte beranduago asebeteko nuen gogo hura, Akelarre taldearen kantaria nintzelarik, hain zuzen ere. Kantaria izateaz gain kantugile bilakatu nintzen Akelarrerren baitan. Ordurako, euskara ikasten hasia nintzen eta sortu ditudan kantu guztiak euskaraz sortu ere.

Akelarre utzi ondoren, moduz ezberdinetan segitu dut abestali ibilbidea, taldean, bikoteka edo bakarka, plazak, tabernak zein kantu tradizional taldeak animatuz

2010ean, bakarkako lehen diskoa kaleratu nuen: "Patrice Dumora Watson". Orain, 2022an, bigarren bat sortu dut: "Bobi"



Estekak

- [WEBGUNEA](#)
- [KONTZERTUAK](#)
- [KLIPA](#)
- [PRENTSA](#)